



EUROPAKO ELKARTASUN KIDEGOA

(UDAL TEKNIKARIEI KONTATUA)



ZZER DA EUROPAKO ELKARTASUN KIDEGOA (EEK)?



Europako Elkartasun Kidegoak bi eta hamabi hilabete arteko boluntarioria-postuak eskaintzen ditu, Europa osoko komunitateetan elkartasuna sustatzeko.

Europako Elkartasun Kidegoak esperientzia handia lortzeko, euren gaitasunagaratzeko eta gizarteari zerbitzu bat emateko aukera ematen die gazteei. Boluntarioria esperientzia bilatzen ari diren gazteentzako erantzuna izan daiteke Europako Elkartasun Kidegoa.

Erakunde publiko zein pribatuentzat, Europako Elkartasun Kidegoa gazteak boluntarioriazara erakartzeko aukera bat da, herritarren eta, oro har, gizartearen onurarako balio duten proiektuak martxan jarritz.

EEK-k proiektuaren kostuen %80 finantzatzeko aukera ematen du, diru-laguntza eskatu ondoren.

ZER EKARPEN EGITEN DIE EEK-K UDALERRIEI?

- ✓ Elkarre-sarea **dinamizatzen** laguntzen du
- ✓ Udalerrian boluntarioria **sustatzen** du
- ✓ **Kultura aberasten** du eta aurreiritziak ezabatzen laguntzen du
- ✓ Tokiko boluntarioek egin ezingo lituzketen **jardueretan laguntzen du**, horiek aldizkakoak izan ala ez
- ✓ Boluntarioriazaren eta gazteen lana **ikusarazten** du
- ✓ Kolektibo behartsuak **integratzeko aukera ematen** du
- ✓ Udalerriko **gazteen mugikortasuna bideratzen** du

ZEIN KONPROMISO HARTZEN DUTE EEK-N PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEK?

Parte hartzen duen erakunde orok, handi edo txiki, EEK-n egiaztatuta egon beharko du, agindua eta Europako Elkartasun Kidegoaren printzipioak sinatu eta Kidegoaren Gutunera atxiki. Gutun horrek dagokion eremuko eta parte-hartzaileen kontratazioaren barruko jarduerak azaltzen ditu.

Harrera erakunde bezala parte hartzen duten erakundeak heltzean formazioa emateaz arduratuko dira, ostalua eta mantentzeaz, tokiko garraioaz, hizkuntza formazioaz, lanerako laguntza eta ikuskaritzaz,

eta lortutako gaitasunen laguntza eta egiaztatzeaz.

Laguntza erakunde bezala parte hartzen duten erakundeek (gaztearen egoitza herrialdean) joan aurreko formazioaren ardura izango dute, osasun aseguruia izapidetzearena, bidaiaren eta bisen kudeaketarena, eta proiektuak irauten duen bitartean erreferentzia izango dira edozein arazo edo zalantza izatekotan. Era berean, amaierako ebaluazioa egin beharko dute beste herrialdean egonaldia amaitzean.

ZER EGIN BEHAR DA PARTE HARTZEKO?

Parte hartzen duen herrialde batean edo kide den herrialde batean ezarritako **edozein antolakundek**, **publiko zein pribatu**, irabazi asmoekin edo gabe, har dezake parte Europako Elkartasun Kidegoan.

Hasteko, europako batzordeko **Egiaztatze Zerbitzuan kontu bat sortu behar da**.

Gainera, erakundeek Europako Elkartasun Kidegoaren **Kalitate Zigilua izatea beharrezkoa da**. Zigiluak egiaztatzen du erakunde bat gazteek kalitatezko boluntariora, praktika eta enplegu jarduerak egiteko baldintza egokiak bermatzeko gai dela, kidegoaren helburuak betez.

UDAL TEKNIKARIEK IZAN DITZAKETEN ROLAK

- ✓ **Gazteak bidaltzea** sustatzea
- ✓ **Elkarte-sareari laguntzea**, bidaltzeko edo harrera egiteko
- ✓ Espainiako eta Europako beste leku batzuetako **boluntario gazteen harrera**
- ✓ Boluntarioritza sustatzea, **gazteak komunitatean inplikatzeko**, gazteentzako Europako programak zabaltea...

BIZKAIAGARAK LAGUNTZA EMATEA EEK AKTIBATU NAHI DUTEN UDALERRIEI

- ✓ Informazioa eta **orientazioa**
- ✓ **Zabalkundean laguntzea**
- ✓ **Erakundeei/udalerriri** programan parte hartzen laguntzea
- ✓ **Baliabideak**, kontaktuak, ekimenak eta abar helaraztea.

BIZKAIAGARAREKIKO HARREMANA



944 161 511



europa@bizkaiagara.eus